

begirada

78

azaroa
2020



Photo by Orlando Imperatore, used under CC BY-NC-SA 2.0 / Cropped from original

Depósito legal BI-2224-04

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



INKLUSIOAREN ETA INTEGRAZIOAREN INDIZE SINTETIKOA

Atzerriko immigrazioaren arloan lan egiten eta ikertzen dugun pertsonok dugun zeregin eta kezka nagusia da aztertzea nola lortu dezakegun Euskadin bizi garen pertsona guztiak erabat gizarteratzea.

Begirada honek tresna analitikoak sortzea du xede, atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratze prozesuak nola gertatzen ari diren azaltzen duen kalitatezko informazioa lortu ahal izateko.

Zehazki, Inklusioaren eta Gizarteratzearen Indize Sintetikoa (*Basque Inclusion Integration Index BI3*) aurkeztu nahi dugu, EPIE2018 planak emandako datuetan oinarritutakoa. Indize horren bidez lortu nahi da argi pixka bat ematea, eta tresna erabilgarri bat izatea, atzerritar jatorriko pertsona guztien gizarteratze prozesuak hobetzeko politika sozialak diseinatu ahal izateko.

Zer ematen digu gizarteratze indizeak?

EPIE2018 galdeketaren bidez bildutako datuek informazio ugari ematen digute atzerriar jatorriko pertsonen adierazle askori buruz —adierazle pertsonalak zein familia unitatearenak—. Eta gizarteratze indize sintetiko bat prestatu eta hortik ateratako datuak aztertu ostean, honako hau baieztatu dezakegu:

1. Atzeritik datozen pertsonen gizarteratzea oinarritzko zazpi ALDERDIK osatzen dute: LANERATZEA eta lan baldintzak; pertsonen GIZARTE ONGIZATEAREN maila; pertsona eta familia unitateen egoera soziala eta EKONOMIKOA; pertsonen NORTASUNAREN alderdia; HERRITARTASUNAREKIN zerikusia duten alderdiak; harremanen eta KOMUNITATEKO parte hartzearen arloa; eta etorkizunerako BIZITZA IGURIKIMENEKIN lotutako gaiak.
2. Zazpi indize partzialek eta gizarteratzearen indize sintetikoak agerian uzten dute pertsona eta pertsona talde batzuk gizarteratzearen fase goiztiarrenetan daudela, eta beste batzuk, berriz, fase aurreratuagoetan. Datuek, beraz, GIZARTERATZEA prozesu SEGMENTATUA dela baieztatu dute.
3. Gainera, zazpi alderdiek elkarren arteko elkarreraginak dituen sistema bat osatzen duten arren, haien garapen erritmoa ez da berdina; hortz, GIZARTERATZEA ASIMETRIKOA dela esan daiteke: pertsona berak gizarteratze maila desberdinak izan ditzake aztertutako zazpi alderdietan. Gizarteratzea osatzen duten zazpi alderdiak erritmo desberdinetan garatzeak une edo fase desberdinak eragiten ditu pertsona bakoitzaren gizarteratze prozesuan, haren alderdietan zein prozesu orokorrean.
4. Pertsona guztiek ez dute gizarteratze egoera berera iritsi nahi, ez eta iritsi beharrik ere: nahiz eta gutxieneko batzuk ezar daitezkeen, alderdien arteko garapen maila desberdinek GIZARTERATZEKO MODU ANITZAK sortzen dituzte. Ezin dugu gizarteratzeko modu bakar bat ezarri; hainbat modu daude atzerriarrak gizarteratzeko, EAEn edo Espainiako Estatuan sortutakoekin gertatzen den eran.

1

Gizarteratzea alderdi anitzeko sistema bat da

1. koadroa

Gizarteratzearen alderdiak

Gizarteratzearen indizea konstruktua metodologikoa da, eta gizarte zientzietan erabiltzen da, gai jakin batekin lotutako adierazle askoren informazioa laburbildu nahi denean. EPIE2018 Eusko Jaurlaritzaren aurreko legegintzaldiko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren estatistika organoak sortutako estatistika eragiketa bat da, eta EAEn bizi diren atzeritarren gizarte errealitatearekin lotutako 500 adierazle baino gehiago ditu. Indize sintetiko batek “eta, laburbilduz?” galderari erantzun nahi dio.

Landu dugun indizea¹ 70 aldagaik emandako datuetan oinarritu zen lehenengo fasean, eta, behin betiko diseinuan, 50 indizek emandako datuetan. Horietan lortutako datuetatik abiatuta, pertsona bakoitzaren informazio guztia zazpi baliotara murriztu dugu; zazpi balio horiek bat datoz oinarritzko zazpi alderdiekin (gizarteratzearen indize partzialak), eta pertsona bakoitzaren gizarteratzea adierazten duen azken balio batekin.

¹ Gizarteratzearen indize sintetiko bat egin dugu, osagai nagusien lehen analisi faktorial bat eginez hautatutako 50 aldagaiei, oinarrian zer alderdi dituen zehazteko (gizarteratzearen indize partzialak), eta finkatutako 7 alderdiei osagai nagusien analisi faktorial bat eginez, bigarren mailakoa, horiek haztatzeko eta gizarteratze prozesu orokorrean zer posizio duten finkatzeko (gizarteratze indize sintetikoa).

Inklusioaren eta Integrazioaren Euskal Indizea BI3

Lan-munduan % 29,95

Z87 Lan-baldintzak
Z86 Lan-erritmoa
Z82 Lanpostua
Z81 Lanaren edukia
Z88 Lanaren gogortasuna
Z89 Laneko arriskuak
Z92 Lana-bizitza egokitzea
Z85 Harremanak nagusiekin
Z90 Laneko estresa
Z84 Lan-ordutegia
Z91 Ordainsaria
Z61 EAEn lan egitea
Z83 Lanean mailaz igotzea

Ongizatean % 16,31

P69 Diru-sarrerak oinarritzkoak
P70 Etxebizitza-gastuak
P83 Oinarritzko premiak
P72 Haragia jatea
P77 Ez-ordaintzeak, atzerapenak
P80 Familiari laguntza eskatzea
P82 Gai zorpetzea
P78 Argindarra, ura... moztea

Sozioekonomikoa % 14,37

P81 Laguntza ekonomikoa
P84 Diru-sarrerak
P88 Gizarte-zerbitzuen erabilera
P86 Pobrezia-maila
P71 Ustekabeko gastuak
P90 Giz.-zerb. pribatuen erabilera
Z124 Enplegu-itxaropenak
P73 +% 30 etxebizitza-gastuetan
P61 Etxebizitza-erregimena

Identitarioa % 12,48

Z118 Integrazioa euskal gizartearen
Z101 Integrazio-zailtasunak autoktonoekin
Z114 Autoktonoen buruzko balorazioa
Z99 Aisialdia betetzea
Z128B Gaztelania jakitea
Z102 Integrazio-zailtasunak etorkinekin
Z115 Etorikinei buruzko balorazioa

Komunitarioa % 10,12

Z100 Aisial. taldeetan parte hartzea
Z105 Kirol-elkarte edo -klubetan parte hartzea
Z106 Hezkuntza- eta/edo kultura-taldeetan parte hartzea
Z104 Etorikinen erakundeetan parte hartzea
Z103 Etorikinen talde informalak

Herritasunean % 11,06

Z112 Udal-hauteskundeak
Z111 Hauteskunde autonomikoak
P22 Administrazio-egoera

Itxaropenetan % 5,71

Z121 5 urterako itxaropenak
Z122 Etorikizunerako itxaropenak

Iturria: egileek egin


Datuek Freeman-en ikuspegiak berresten dituzte (1986, 2004)², bai eta Bosswick eta Heckmannena (2006)³ ere, zenbait alderditan oinarritutako gizarteratzea proposatzen baitute: gizarteratzea alderdi anitzeko fenomeno da. Baina, gure kasuan, zazpi alderdi proposatzen ditugu:

1. **Laneratzea:** lan merkatuan sartzeko aukerak eta lan baldintzekin izandako asebetetzea hartzen ditu kontuan, unean unekoak eta iraganekoak.
2. **Gizarte ongizatea:** etorkin atzeritarren gizarte ongizateari buruzko alderdiak biltzen ditu, zentzu zabalean.
3. **Gizarteratze sozioekonomikoa:** alderdi hori lehenengo bietatik bereizten da, eta batez ere diru alderdietara mugatzen da, sarrerekin, laguntza ekonomikoak eskatzeko beharrekarekin eta abarrekin zerikusia dutenetara alegia.
4. **Nortasuna:** faktore edo alderdi horrek euskal gizartekoa izatearen sentimendua, bertako pertsonen eta etorkinen taldeetan sartzeko zailtasunak eta kolektibo horiei buruz egiten den balorazioa hartzen ditu kontuan.
5. **Herritartasuna:** atzeritarrek herritarren eskubideak erabiltzeari dagokionez duten egoera aztertzen du faktore honek.
6. **Komunitateko kide izatea:** atzerriko pertsonen komunitatean duten parte hartzearen maila jasotzen du faktore honek.
7. **Bizi igurikimenak:** pertsonen bizi igurikimenak biltzen ditu alderdi honek, eta euskal gizartea bere migrazio prozesuaren amaiera dela edo etapa bat dela sentitzearekin lotuta dago.

Alderdi guztiek ez dute pisu bera pertsonen gizarteratzean: ENPLEGUAREKIN lotutako alderdiari –diskriminazio gehien eragiten duena da, hain zuzen ere– gizarteratzearen indize sintetikoaren %29,95 dagokio; ONGIZATEARI, %16,31; alderdi SOZIOEKONOMIKOARI, %14,37; NORTASUNAREN alderdiari, %12,48; HERRITARTASUNARI, %11,12; KOMUNITATEKO kide izatearekin lotutakoari, %10,71, eta etorkizunerako IGURIKIMENEKIN lotutakoari, %5,71 –indize osoaren zatirik txikiena, hain zuzen ere–.

1. grafikoa

Alderdien pisua gizarteratzean (%)



Iturria: egileek egina

² Freeman, G. (1986). *Migration and the political economy of the Welfare State*. Annals of the American Academy of Political and Social Science, 485, 51-63 orr.

Freeman, G. (2004). Immigrant incorporation in Western Democracies. *International Migration Review*, 38, 945-969 orr.

³ Bosswick, W. eta Heckmann, F. (2006). *Integration of migrants: contribution of local and regional authorities*. Dublin: European Foundation of the Improvement of Living and Working Conditions. On-line (kontsulta: 2020ko apirilaren 29). Berriz berreskuratua hemendik: https://www.researchgate.net/publication/297802930_Integration_of_Migrants_Contribution_of_Local_and_Regional_Authorities

2 Gizarteratzea prozesu segmentatua da

Gizarteratzearen indize sintetikoak eta indize partzialek emandako datuek ebidentzia bat utzi dute agerian; horri esker, gure zein beste batzuen (Portes 1989, 2000)⁴ ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren bidez jakin izan duguna berretsi dezakegu orain: jatorri atzerritarreko pertsonak eta taldeak gizarteratzeko prozesuak asko aldatzen dira pertsonen eta pertsonen kategoria sozialen arabera.

Beste era batera esanda, zenbait aldagai bereizle daude, gizarteratze prozesuan posizio aurreratuagoa edo goiztiarragoa izateko aukera aurreikusten dutenak (ikus 2. koadroa). Honako aldagai hauek dira: adina, nazionalitatea, jatorria, egoera zibila, gutxiengo erlijiosoa, ikasketa maila, lanbidea, jarduera ekonomikoa, Espainiako estatuan emandako denbora, erroldatuta emandako denbora eta egoera administratiboa.

2. koadroa

Aldagai iragarleak edo bereizleak

Integrazio sozialean aurrerapen gutxien egin duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Integrazio sozialean aurrerapen handienak egin dituzten pertsonen profila
16 urtetik 24ra	Adina	.000	25 urte eta gehiago
Atzerritarra	Nazionalitatea	.000	Espainiakoa
Saharaz hegoaldeko Afrika, Magreb, Senegal	Jatorria	.000	Argentina/Txile/Uruguai, Mendebaldeko EB, Kolonbia/Ekuador/Peru, Brasil/Venezuela/Dominikar E. , Txina
Ezkongabea	Egoera zibila	.000	Ezkondua
Erlijosoa	Minoria	.000	Beste egoera batzuk
Ikasketarik gabe	Ikasketak	.000	Unibertsitatekoak, LH II
Kualifikaziorik gabe	Lanbidea	.000	Zuzendaritzakoak, teknikariak, langileak
Langabe egon daitekeena eta ez-aktiboa	Jarduera	.000	Lanean
2 urte baino gutxiago	Urte Espainia	.000	15 urte eta gehiago
Erroldatu gabe, 5 urte baino gutxiago	Urte errolda	.000	Betidanik, 10 urte baino gehiago
Irregularra, lan-baimenik gabeko aldi baterako bizileku-baimena, beste lege-egoera batzuk	Administ. Ego.	.000	Aldi baterako bizileku-baimena lan-baimenarekin, bizileku-baimen iraunkorra, nazionalizatuta

Iturria: egileek egina

² Portes, A. eta Borocz, J. (1989). Contemporary immigration: theoretical perspectives on its determinants and modes of incorporation. *International Migration Review*, 23, 606-630. On-line. (Kontsulta 2020ko apirilaren 29). Hemendik berreskuratua: <https://www.semanticscholar.org/paper/Contemporaryimmigration%3A-theoretical-perspectives-Portes-Borocz/4d61ee252d2e0799c3d3724a18fe84d2b949373b>
Portes, A. (2000). *Teoría de inmigración para un nuevo siglo: problemas y oportunidades*. In F. Morente (ed.), Cuadernos Étnicas. Inmigrantes, claves para el futuro inmediato. Jaén: Cruz Roja-Universidad de Jaén, 25-60 orr.

2. grafikoak erakusten digu gizarteratzea nola segmentatzen den pertsonen jatorriaren arabera: ezkerrean, gizarteratze fase goiztiarrean daudenak jaso dira, Afrikako gainerako herrialdeak (RA) eta Magreb (MG); eta eskuinean, posizio aurreratuagoan daudenak, hala nola Argentina/Txile/Paraguai (AG), Mendebaldeko EB (EB), Kolonia/Ekuador/Peru (CB), Brasil/Venezuela/E. Dominikarra (BR) eta Txina (CH).

Bi muturren artean, ezkerretik eskuinera, honako hauek daude: Senegal (SG), Munduko gainerako herrialdeak (RM), Bolivia (BL), Paraguai (PY), Errumania eta EB ekialdeko beste herrialde batzuk (RU) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak (RL).

Gainera, datuek berresten dute gizarteratzearen fase goiztiarrenetan dauden posizioak askoz ere lotura estuagoa dutela elikadura, jantzi, oinetako edo etxebizitza beharrak betetzeko zailtasun ekonomikoekin, oinarritzko alderdietan gabezia egoera askotariko eta larriekin, etxebizitza egoera eskasekin eta pobrezia-erantzukizun subjektiboko egoerekin.


Beste horrenbeste gertatzen da gizarteratzearen zazpi indize partzialak, ezarritako⁵ zazpi alderdiei dagozkienak, aztertuz gero; gizarteratze posizio segmentatuak dituzte.

Pertsonen generoari dagokionez, ordea, ez dugu ikusten lotura esanguratsurik duenik gizarteratze prozesuan duten posizioarekin. Baina ikusi dugu badagoela generoaren eta jatorriaren arteko interakzio bat, gizarteratze fase goiztiarrago edo aurreratuago batekin lotuta dagoena (gizonak ardatzaren gainaldean adierazi dira, eta emakumeak, behealdean). 3. grafikoan ikusten da hori. Fase goiztiarrean dauden taldeak ezkerrean daude, eta gizarteratze fase aurreratuenean daudenak, eskuinaldean.

Gizarteratze prozesuko posizio goiztiarrenetan daude Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeak, Magrebeko emakumeak, Senegaleko emakumeak, Magrebeko gizonak eta Afrikako gainerako herrialdeetako gizonak.

2. grafikoa


Gizarteratze prozesuaren segmentazioa jatorriaren arabera



Iturria: egileek egina

3. grafikoa

Gizarteratze prozesuaren segmentazioa generoaren eta jatorriaren arabera



Iturria: egileek egina

⁵ Ikusi informazio osoa Oleaga Páramo, José Antonio (2020) dokumentuan: *Índice sintético de inclusión e integración social: un instrumento para el diseño de políticas públicas. Basque Inclusion Integration Index BI3*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

3 Gizarteratzea asimetrikoa da bere alderdietan

Lortutako datuak beste ikuspuntu batetik landuz gero, eta gizarteratzea osatzen duten zazpi alderdiei erreparatzen badiegu, bost azpitaldetan bana ditzakegu atzerriko pertsonak; hala, gizarteratzearen indize partzialetan dituzten posizioei dagokienez, talde bakoitzeko kideek antzeko ezaugarriak dituzte (talde barruko homogeneotasuna), eta, aldiz, desberdintasunak daude talde batzuetako eta besteetako kideen artean (taldeen arteko heterogeneotasuna).

Bost multzoetako bakoitzaren azterketa xehakatuak eta analitikoak eginez gero, agerian gelditzen da talde bakoitzak ez duela orekarik zazpi alderdien artean, konglomeratu batek izan ezik (3. koadroko eskuineko zutabekoa, G5). Konglomeratu horrek gizarteratze posizio aurreratuak ditu alderdi guztietan. Gainerakoek posizio asimetrikoak dituzte; nahiko posizio goiztiarrak dituzte alderdi batzuetan, eta aurreratuagoak beste batzuetan.

Konglomeratu batek dimentsio jakin batean duen balioa adierazten digute koloreek, honako kode honi jarraikiz: nahiko balio handia (kolore berde bizia), altua (berde argia), ertaina (laranja), baxua (more argia) edo oso txikia (more iluna).

3. koadroa

Pertsonen konglomeratuak, gizarteratzearen zazpi alderdietan duten posizioaren arabera

	G1	G2	G3	G4	G5
Integratzearen indize partziala...	Oso ondo doakit, neure erara	Gaizki, oso gogorra izaten ari da	Nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua	Lana izan ezik, ez doakit gaizki	Integratuta alderdi guztietan
Lan-munduan	0,53281	-0,53218	0,18043	-1,83500	0,20822
Ongizatean	0,39227	-2,11920	0,26338	0,30493	0,26477
Sozioekonomikoa	0,37516	-1,39479	-0,15740	-0,20550	0,51675
Identitarioa	0,27215	-0,49412	-0,77203	-0,14529	0,48082
Herritartasunean	0,05518	-0,40172	-0,35875	-0,19434	0,93997
Komunitarioa	-0,36880	-0,01525	-0,14385	-0,19025	2,15939
Itxaropenetan	0,31522	0,06217	-1,82542	0,26227	0,32009

Iturria: egileek egina


G1 konglomeratuan, asimetria nabarmena dago gizarteratze materialaren (lana, ongizatea, sozio-ekonomia) eta identitarioaren (harremanak eta euskal gizartean hautemandako irudiak) alorretan duten aurrerapen mailaren eta egoeren eta herritartasun eta komunitate alderdien gizarteratzearen alorretan duten aurrerapen mailaren eta egoeren artean.

G2 konglomeratuan, integrazio materialari, identitarioari eta herritarren eskubideei dagokionez, egoera pertsonal eta familiar oso gogorak ikusten dira. Komunitate dimentsioetan eta etorkizuneko igurikimenetan baino ez dira ageri jarrera itxaropentsuak.

G3 konglomeratuko pertsonen dagokionez, ateratako balioek adierazten dute asimetria handia dagoela haien gizarteratze prozesuan. Talde honek posizio eta aurrerapen nabarmenak erakusten ditu alderdi materialetan, laneratzean eta ongizatean batez ere, nahiz eta ez duen jarrera ekonomiko sendorik adierazten. Baina oraindik ibilbide luzea dute egiteko nortasunarekin, herritartasunarekin eta komunitateko kide sentitzearekin lotutako gizarteratzearen alorretan. Gainera, etorkizunerako igurikimeneen ikuspegitik, oso gizarteratzea urria dute.

G4 konglomeratuko posizioek adierazten digute defizit handia dutela laneratzearen alorrean. Talde horrek jarrera interesgarriak ditu zenbait dimentsiotan, hala nola ongizatean, nortasunaren alorreko gizarteratzean (hala ere, hobetzeko tarte handia du), komunitate integrazioan eta etorkizunerako igurikimenetan. Horrek esan nahi du aurrerapen handiak egin dituztela gizarteratze sentimendu subjektiboan, euskal gizartearen parte sentitzearekin eta gizarte horretan gustura egotearekin eta bertako etorkizuneko bilakaeran parte hartzeko nahiarekin lotuta. Baina laneratze eskasaren handicap horrek eragin handia du, eta integrazio sozioekonomikoa ere asko hobetu behar dela ikusten da.

Azkenik, **G5** konglomeratuko pertsonak daude posizio erlatibo onenetan aztertutako zazpi dimentsioetako gehienetan. Egia da G1eko kideek posizio hobeak dituztela lan ongizatearen eta ongizate materialaren aldetik, baina, hala ere, talde hau osatzen duten pertsonak dira gizarteratze sinbolikoko, identitarioko, herritartasuneko eta komunitarioko prozesuetan gehien aurreratu dutenak, eta, horrekin batera, euskal gizartean etorkizunera begirako gizarteratze maila handia dutenak.



4 Gizarteratzea anitza da

Datuen arabera, prozesuaren amaieran oreka lortzeko joera bat egon arren, pertsona eta/edo talde batek posizio asimetrikoak izan ditzake gizarteratze prozesu globalaren oinarrian dauden alderdietan.

Posizio asimetriko horiek zenbait zehaztapen gehitzen dizkiote Bosswick-en eta Heckmann-en (2006)⁶ proposamenari, gizarteratzea osatzen duten alderdien arteko elkarreraginek orekatuak izan behar dutela adierazi baitzuten. Haien baieztapenetatik, gainera, uler daiteke gizarteratzeko agertoki posible bakarra dagoela, eta prozesu guztiak, ibilbidean asimetrikoak izanik, *gizarteratze* delako emaitza bakar batean amaitzen direla nahitaez.

Agian, errealtateak pentsarazten digu gizarteratzea era askotara uler daitekeela, prozesuak, ibilbidearen eta erritmoaren ikuspegitik, desberdinak direnak, eta ez dutela zertan bukatu gizarteratzeko modu bakar batean orekatuz. Agian, pentsatzen hasi behar dugu gizarteratze emaitza anitzak egon

daitezkeela, pertsona eta/edo talde atzerritarren arabera desberdinak izan daitezkeenak, eta horiek ez dutela zertan multzo oreka bat behar. Adibidez, zenbait pertsonak eta pertsona taldek ez dute behar integrazio komunitarioko edo identitarioko posizio aurreraturik, erabat gizarteratuta daudela sentitzeko; eta talde edo pertsona batzuek, behin alderdi materialetan posizio aurreratu jakin bat lortutakoan, lehentasuna ematen diete komunitatearekin, nortasunarekin edo herritartasunarekin lotutako alderdiei. Agian, gizarteratzearen teoria berri bat pentsatzen hasi beharko genuke, honako ezaugarri hauek dituela kontuan hartuta: taldekako segmentazioa, talde barruko alderdi anitzeko asimetria eta gizarteratze anizkoitza.

Bertako biztanleen artean, euskaldun izateko eta sentitzeko moduak askotarikoak dira, eta are anitzagoak izango dira atzerritar jatorriko pertsona guztiak gizarteratzen direnean. Baina horiek guztiak bat datoz duela hamarkada batzuk aita Joxe Migel Barandiaranek egin zuen definizioarekin,

elkarrizketa batean euskaldun izatea zer zen galdetu ziotenean (“Zer da euskaldun izatea?”).

Humanista eta zientzialari horren aburuz, euskalduna izatea Euskal Herrian bizitzea da, hemen lan egitea, hemen ikastea, hemen haztea, lur hau maitatzea, euskaraz hitz egitea, euskara maitatzea, ohitura eta bizimodu batzuk partekatzea, seme-alabak hemen izatea, gizarte proiektu komun batean parte hartzea... Euskaldun izan eta sentitzeko modu asko daude.

Bertakoen artean euskaldun izateko eta sentitzeko modu asko eta askotarikoak dauden bezala, gure ustez, askotarikoak izan daitezke atzerritarrek gizarteratzeko amaierako moduak ere.

⁶ *op. cit.*